


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ingelesetik euskararako ikus-entzunezko itzulpena:
The Good Place telesailaren lehenengo kapituluaren
itzulpena eta itzulpenaren analisia

Abrego Caro, Irene

Itzulpengintza eta interpretazioa

2019-2020

Tutorea: Manterola Agirrezabalaga, Elizabete

Saila: Ingeles eta Aleman Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazioa

Laburpena

Ikus-entzunezko itzulpenak garrantzi handia dauka gaur egun; izan ere, ikus-entzunezko produktuak askotan itzuliak kontsumitzen dira, bikoizketa zein azpidatzien bitartez izan. Bikoizketa hizkuntza baten normalizaziorako eta zabalkunderako primerako tresna da, baita hizkuntza horren ahozotasuna eta naturaltasuna lantzeko ere. Horregatik, lan honetan ikus-entzunezko itzulpena landu dut. Horretarako, jarduera-praktiko bat hartu dut oinarri gisa: *The Good Place* telesailaren lehenengo kapituluaren pasarte baten ingelesetik euskararako itzulpen-egokitzapena egin dut, ondoren, horren analisia egiteko. Itzultzerako orduan hizkuntza konbinaketaren berezko zailtasunak aurkeztuko zaizkigu, eta horrekin batera, ahozotasuna. Gainera, umorezko telesail bat landu dut, eta umorea itzultzeak berezko ezaugarri batzuk ditu, hala nola, testu honetan presentzia handia duten hitz jokoak.

Ikus-entzunezko itzulpena garrantzitsua den arren, gurean, bikoizketa desagertzeko zorian dago, beherakada handia izan duelako azken urteetan. Gaur egun, ez dago eduki erakargarririk, eta horrek euskarari kalte handia egiten dio. Esan beharra dago euskararako bikoizketa EITBrekin estu lotuta egon dela eta dagoela. Izan ere, EITB egitasmoa sortzearekin garatu zen euskarazko ikus-entzunezkoen itzulpena, eta bikoizketa egoera onean egon denean, Euskal Telebistak kanpo-produkzioa euskaratzearen beharra izan duenean izan da. Orain, berriz, programazioan ez dutenez euskaratutako telesail eta filmentzat tokirik uzten sektorea gainbeheran dago.

Bestetik, bikoizketarako egokitzapena egiteko orduan gako nagusi batzuk hartu behar dira kontuan; adibidez, itzulpen-egokitzapena egiten dugunean garrantzitsua da gogoan izatea testua ez dela independentea, irudiaren menpe dagoela, beraz, sinkronia mantentzen saiatu beharko gara.

Gradu amaierako lan honek jarduera praktiko bat du oinarritzat, baina sarrera gisa alderdi teorikoa landu dut. Beraz, bi atal nagusi izango ditu: alde batetik, alderdi teorikoa, eta bestetik praktikoa. Atal bakoitzaren barnean hainbat puntu aztertuko dira. Alderdi teorikoarekin hasteko, euskal bikoizketaren historia apur bat eta gaur egungo egoera ikusiko ditugu, lanerako egindako itzulpenak merkatuan izango duen tokia ikusteko. Teoriarekin jarraitzeko, lehen aipatutako bikoizketaren gako nagusiak azalduko dira, eta umorearen itzulpenaren berezitasunak aipatuko ditut bukatzeko. Ondoren, alderdi praktikoari ekingo diot eta lehendabizi itzulgaiaren ezaugarriak ikusiko ditugu eta

ahozkotasuna eta hitz jokoez itzulgaian duten garrantzia aipatuko ditut. Atal horretan itzulpen prozesuari buruzko hainbat ohar emango ditut. Jarraian, itzulpena bera txertatuko dut eta bukatzeko, hizkuntza konbinazioak eta itzulpen modalitateak, hots, bikoizketak, dituzten zailtasunak aztertuko ditugu, eta horretarako, itzulpen prozesuan aurkitutako zailtasunen adibideak eta horien konponbideak ikusiko ditugu. Azken atala bi fasetan banatuta dago: lehenengoa, itzulpena egiterakoan aurkitutako arazoena, eta bigarrena egokitzapena zehatzago egitean egin behar izandako aldaketena. Amaieran, ateratako ondorioak aipatuko ditut; alde batetik, itzulpenak tokia duen argituko dut, eta itzulpena egiterakoan ateratako beste ondorio batzuk aurkeztuko ditut.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Alderdi teorikoa:	5
a. Bikoizketaren egoera Euskal Herrian egun.....	6
b. Bikoizketaren gako nagusiak	7
c. Umorea itzultzea.....	10
3. Alderdi praktikoa:	11
a. Jatorrizko testuaren azterketa:.....	12
b. Itzulpena: Everything is fine.	15
c. Itzulpen arazoei eta horiei emandako konponbideei buruzko iruzkina:	25
4. Ondorioak	34
Bibliografia	36
1.go Eranskina.....	37

1. Sarrera

Lan honetan Michael Schurren *The Good Place* telesailaren «Everything is fine» kapituluaren lehenengo 14 minutuak landuko ditut.

Lana itzulpen-praktika batean oinarritzen da. Horren arrazoia da ikus-entzunezkoen euskararako itzulpena landu nahi nuela eta horretarako praktika bat egitea aproposena iruditzen zitzaidan. Bikoizketarako itzulpena egitea erabaki nuen egokitzapena ere landu nahi nuelako, eta bikoizketan lantzen den ahozkotasuna aztertu nahi nuelako. *The Good Place* itzultzea erabaki nuen interesgarria iruditzen zitzaidalako dituen hainbat ezaugarriengatik, baina batez ere, hitz jokoen presentzia eta garrantziagatik. Gainera, oso itzulgai egokia iruditzen zitzaidan ahozkotasuna eta umorea lantzeko.

Lanaren helburua kapitulua aztertzea, itzultzea eta itzulpenaren analisisia egitea da. Ingelesetik euskarara egindako lana denez, hizkuntza konbinaketa horren zailtasunak aztertuko ditut, baita bikoizketarako itzulpenaren berezko ezaugarriak ere. Horrekin batera euskal ikus-entzunezko produktuen lengoia eta hitz jokoen garrantzia, umorearen itzulpena, eta itzulpen honek euskal merkatuan izango lukeen lekua aztertuko dut.

Lanarekin hasteko, bikoizketari buruzko hainbat alderdi ikusiko dugu, itzulpena egiterako orduan kontuan izan behar dena ikusteko. Lehenik, Euskal Herriko bikoizketaren egoera gaintik erreparatuko dugu, itzuliko dudako produktuak zer leku izango lukeen ikusi ahal izateko. Gero, egokitzapena egiterako orduan kontuan hartu beharreko gako nagusiak aurkeztuko ditut, eta umorearen itzulpenari buruzko kontzeptu batzuekin bukatuko dut. Ondoren, alderdi praktikoari ekingo diot. Hasteko, jatorrizko testuaren ezaugarriak ikusiko ditugu, ondoren, bikoizketarako egokitutako itzulpena txertatuko dut, eta jarraian itzulpen prozesuan aurkitu ditudan arazoak eta horiei emandako konponbideak aztertuko ditut, eta bukatzeko, ondorio batzuk aterako ditut.

2. Alderdi teorikoa:

Lana itzulpen-jardueran oinarritzen da, baina alderdi praktikoari ekin baino lehen sarrera bat egitea aproposa iruditzen zait euskararako bikoizketaren egoera gogoan izateko eta bikoizketaren gakoak kontuan hartzeko, baita umorearen itzulpenak dituen berezitasunak kontuan hartzeko ere.

a. Bikoizketaren egoera Euskal Herrian egun

Euskarazko ikus-entzunezkoen bikoizketa Euskal Telebistari guztiz lotuta egon da, ETB1 baita euskarazko produktuak zabaldu dituen katea. Oso paper garrantzitsua izan du ETBk euskararen normalizaziorako eta zabalkunderako, eta hori egiteko kanpoko produktuak gurera ekartzea erabaki zuen. Izan ere, ETBk hasieratik egin zuen bikoizketaren aldeko apustua.

EITB sortu baino bi urte lehenago, hau da, 1980an, euskarazko ikus-entzunezko itzulpena garatzen hasi zen, azpiegitura bat osatzeko. Egitasmoa aurrera eraman ahal izateko profesionalak behar ziren, eta horretarako Irrati eta Telebista eskola¹ sortu zen. Gutxira, beste bikoizketa eskola bat eta bi bikoizketa-enpresa (Eresoinka eta Galdakao Estudios²) sortu ziren. ETBren bikoizketa beharrak asetzea zen horien xedea, hasierako urteetan ordu asko bikoizten baitziren. EITBko Administrazio Kontseiluaren datuetan oinarriturik (Barambones, 2006), 1983ko martxoan, 100 bat profesionalak egiten zuten lan ikus-entzunezkoen itzulpenean eta bikoizketan. Hala ere, ez zen nahikoa EITBk bikoizketa arloan zituen beharrak asetzeko. Gaur egun, ordea, euskarara bikoizten duten bikoiztaileak 40-45 lagun inguru dira (Beraetxe & Alkiza, 2019), eta hogeita bost bat itzultzaile-egokitzaile dira itzulpenak egiten dituztenak (Barambones, 2006).

Garai oparoak izan zituen bikoizketak. Izan ere, 1980ko hamarkadan, 1.589 ordu bikoizten ziren euskarara urte bakarrean, baina denborarekin, bikoizten ziren ordu kopuruak gutxituz joan ziren, eta gaur egun, 100 ordu baino ez dira bikoizten (Ferreira, 2019).

Gaur egun, euskarazko bikoizketa egoera larrian dago. Lan baldintzak urtero okerragotu dira eta horregatik bikoiztaileek greba egitea erabaki zuten 2018ko irailean, eta orain arte jarraitzen dute (Alkiza, 2020).

Hainbat dira euskararako bikoizketa hil zorian egotearen arrazoiak. Alde batetik, Alkizak aipatzen du gaur egun kalitate urriko lana dela, eta arrazoiak euskarazko merkaturik ez egoteari esleitzen dio; konpetentzia ezagatik ez da eskatzen gutxieneko batzuk betetzea eta bikoizketa prozesuaren kate osoa mespretxatzen da: itzultzaileen lana, teknikarien lana, bikoiztaileen lana... (Alkiza, 2020).

¹ Horri buruz gehiago jakiteko (Amezaga, 2013), (Barambones, 2006) edo (Larrinaga, 2007) kontsultatu.

² 1986an Irusoin eta K2000 izatera pasa ziren.

Bestetik, euskarazko bikoizketak ez dauka bideragarritasun ekonomikorik, hortaz, erakunde publikoetatik sustatu behar da, oso tresna interesgarria baita euskara sustatu eta zabaltzeko (Alkiza, 2020). Baina ETBren ereduak euskarazko fikzioa desagerrarazi du. Izan ere, euskaraz dagoen telebista bakarrak ez ditu filmak eta telesailak ematen, eta ematen direnak jarraitzaile gabeko telesailak dira. Iñaki Beraetxeren hitzetan: «Ez dago eduki erakargarririk euskaraz eta hor dago benetako arrakala eta euskaraz bizitzea ezinezko egiten duen hormatako bat» (Beraetxe & Alkiza, 2019).

Ez dugu gai honetan gehiago sakonduko baina Euskarazko bikoizketaren historia Barambones eta Zabalondoren artikuluan (2006, 13-22. orri.), *Jakin* aldizkariaren 194/195 zenbakian 19-46. orrialdeetan (Amezaga, 2013) eta Larrinagaren artikuluan (2007) aurki daiteke.

b. Bikoizketaren gako nagusiak

Hainbat faktorek eragiten dute bikoizketa-prozesuan: erregistroa, erritmoa, elkarrizketen arteko lotura etab. Baina badaude hiru besteak baino garrantzitsuagoak direnak (Barambones, 2006, 89. orri): egokitzena, ahozkotetasuna eta dramatizazioa. Horiek dira ikus-entzunezko obraren kalitatea neurtzeko erabiliko diren parametroak, sinesgarritasunean eragiten baitute. Jarraian itzultzailearen lanean eragiten duten bi ezaugarriak aztertuko ditut: egokitzena eta ahozkotetasuna.

1. Egokitzena

Ikusten dugunaren eta entzuten dugunaren arteko sinkronia bilatzean datza egokitzena. Hizkuntza guztietan hitzen luzera ezberdina denez eta sintaxia ere ezberdina denez, testu bat bikoizketarako egokitzen dugunean hainbat gauza izan behar ditugu kontuan xede-hizkuntzan, hala nola, sinkronia ezberdinak. Itzultzaile-egokitzaileak lan honetan sormena landu beharko du, jatorrizkoko edukia hartuz, testu berri bat sortu behar duelako, testu idatzitik aldentuz.

Sinkronizazioak hainbat alderdi ditu Chaumeren arabera (Barambonesek aipatu bezala, 2006, 90. orri.):

Hasteko, itzulitako testuaren esapideen eta jatorrizko testuaren esapideen arteko sinkronia. Bestetik, itzulpenaren eta pantailan agertzen diren pertsonaien gorputz-

mugimenduen arteko sinkronizazioa. Eta bukatzeko, itzulpenaren eta pantailan ageri diren pertsonaien artikulazio-mugimenduen arteko sinkronizazioa.

Beraz, egokitzapen ona egiteko hiru sinkronia motari erreparatu behar zaio:

1. Ezpain-sinkronia edo sinkronia fonetikoa

Ezpain sinkronia deitzen zaio itzulpena pantailan ageri den aktorearen aho eta ezpain mugimenduetara egokitzeari. Sinkronia mota hori garrantzitsua da lehen planoetan eta aktorea ONean ari denean, hau da, ezpain mugimenduak oso argi ikusten direnean. Ahoaren irekiera eta itxiera gehien markatzen dituzten formak dira: bokal irekiak (a, e eta o), kontsonante ezpainkariak (p, b eta m), eta kontsonante ezpain-horzkariak (f eta v). Horiek bikoizturiko bertsioarekin bat etortzea lortzen denean errealismo handia lortzen da.

Dena den, sinkronia mota hori ez da lehen bezain zorrotz betetzen. 1960eko hamarkada arte dogma absolututzat hartzen zen baina orain ikusi da ikusleak akats larria egon ezean ez duela nabaritzen. Gainera, egokitzailearen ikuspegitik, ezpain sinkronia bilatzeak lan erritmoa asko geldiarazten du, eta hobe da itzulitako testu on bat izatea. Barambonesek eta Zabalondok Withman-ek (Barambones, 2006, 96. orri.) adierazitakoa biltzen dute:

Lip synchrony, [...] seems to have fallen into desuetude. Until the 1960's it was apparently "absolute dogma" yet is now generally considered to be of secondary importance, [...] basically because research has shown that the viewer cannot discern minor slips and discrepancies in lip movements.

Sinkronia mota honen arazoa da, euskararen eta ingelesaren arteko itzulpen-egokitzapenaz ari garela, bi hizkuntzak oso desberdinak direla fonetikaren ikuspegitik. Bataren eta bestearen hizkuntz ereduak oso urruti daude elkarrengandik eta askotan ezinezkoa gertatuko da fonemak bat etortzea.

2. Isokronia

Bigarren sinkronia mota isokronia da. Itzulpena pertsonaien berbaldien luzera egokitzea da isokronia. Jatorrizko bertsioaren iraupenak eta itzulitako bertsioarenak bat egin behar dute, hau da, aldi berean hasi eta aldi berean bukatu behar dira.

Isokronia-akatsak dira ikusleriak gehien hautematen dituenak, aktoreak ahoa itxi eta halere esaldiaren bukaera entzuten jarraitzen duenean, edo aktoreak ahoa mugitzen jarraitzen duen arren, ezer entzuten ez duenean.

Isokroniak sortzen dituen arazoak hizkuntza bakoitzaren izaerarekin loturik daude. Izan ere, hizkuntza batzuek hitz gutxiago behar dituzte eduki berbera adierazteko. Ingelesetik euskarara testu bat egokitzean, ikusiko dugu bi testuak ez daudela parekatuta, euskarazko esaldiak normalean ingelesezkoak baino luzeagoak direlako.

3. Sinkronia zinesikoa

Hirugarren sinkronia mota zinesikoa da. Itzulpenak bat etorri behar du pantailako pertsonaien keinu eta gorputz mugimenduekin. Mugimendu eta keinuak hizkuntza eta kulturen arabera aldatzen dira, beraz, hor ere egokitzapena egin beharko dugu entzuten dena ikusten denarekin bat egiteko.

Azken sinkronia mota hau lotuta dago dramatizazio-lanarekin, baina hitzak eta keinuak lotzea lagungarri gerta dakioke itzultzaile-egokitzaileari.

2. Ahozko ahoskotasuna.

Ahozko hizkeraren ezaugarriak errespetatu behar ditugu. Izan ere, ikus-entzunezko testu baten itzulpenak jatorrizko obraren hizkuntza-aldaerak bildu behar ditu. Hala nola lagunarteko hizkera arrunta, epaiketetako hizkera espezializatua, polizien hizkera etab. Itzultzaileak ezin du erabili hizkera berdina komunikazio-egoera guztietan. Ikusizko kanalaren bitartez iristen zaigun kodeak ere entzuten dugunarekin bat egin beharko du. Gainera, itzulpenak ahozko diskurtsoaren itxura izan behar du, hau da, ahozkoa emateko idatzi behar da. Hori egiteko, sortutako testuak ahozko diskurtsoaren berezitasunak izan beharko ditu. Bereizitasun horiek honakoak dira (Barambones, 2006, 89.orri):

Hasteko, berehalako diskurtsoa da, ez planifikatutakoa eta berehalakotasunak diskordantziak sortzen ditu, eta horrekin batera parafrasiak egiten ditugu. Joskeraren aldetik, sintaxia soila izan ohi da, eta lexikoa ere arruntagoa izan ohi da. Hitz edo esamoldeak sartzen ditugu pentsatu ahal izateko (alegia, orduan, ezta?, ba, zera, etab.) Askotan elkarrizketak direnez, deiktikoak erabiliko ditugu. Erregistro ezberdinak

erabiltzen dira, baita hizkera bizia ere: fraseologia, onomatopeiak, interjekzioak, espresio-ugaritasuna etab.

Beste faktore garrantzitsu bat **intertestualitatea** da: testu guztiak testuinguru kultural batean txertaturik daude, beraz, aipamenak, erreferentziak, esapide bereziak etab. aurkituko ditugu eta ikuslea horiek identifikatzeko gai izan beharko da. Egokitzaileak horiekin topatzen denean erabaki beharko du aipamena edo erreferentzia aldatuko duen ulergarriagoa egiteko. Aukera bat erreferentzia etxekotzea da, edo nolabait konpentsatzea.

c. Umorea itzultzea

Umorea itzultzea ikus-entzunezko itzultzaile batek izango duen zailtasun handienetarikoa da, elementu umoristikoak askotarikoak izan daitezkeelako, eta faktore askok baldintzatzen dituztelako. Zabalbeascoak (2001, 255. orri.) honela definitzen du umorea:

Aquí definiremos humor (como elemento textual) como todo aquello que pertenece a la comunicación humana con la intención de producir una reacción de risa o sonrisa (de ser gracioso) en los destinatarios del texto.

Itzultzailea prest egon beharko da jatorrizko testuan elementu umoristikoak hautemateko, eta hori egin ondoren, elementuen garrantziaren arabera lehentasunari eta funtzioari buruz hausnartu beharko du. Bukatzeko, elementuen ezaugarrien eta funtzioaren arabera erabakiko du horiek nola itzuli.

Zabalbeascoak (2001, 257. orri.) elementu umoristikoek testu batean duten lehentasunari buruz hausnartzen du eta lau etiketa erabiltzen ditu garrantzia adierazteko:

- Lehentasun handia. Adibidez, telebistako komedietan.
- Lehentasun ertaina. Adibidez, abenturazko fikzioan, pelikula erromantikoetan, musikaletan.
- Lehentasun txikia. Adibidez, tragedietan hitz jokoen edo ironiaren presentzia dagoenean.
- Lehentasun negatiboa. Horrek esan nahi du, kasu horietan saiatu behar garela umorea irudi dezakeen ezer ez jartzen.

Umoreak funtzio ezberdinak bete ditzake (batzuetan aldi berean). Oinarrizkoena entretenitzea da, eta horrekin batera barrea eragitea. Beste funtzio bat izan daiteke autokritika egitea edo funtzio didaktikoak izatea adibidez. Testu bat itzultzen dugunean ikusi beharko dugu zein den umorearen funtzioa, xede kulturalan funtzionatuko duen jakiteko.

Garrantziaz eta funtzioaz aparte, ikusi beharko dugu zein motatako umorea den. Ezinbestekoa da itzultzaileak umorea egiteko erabili diren mekanismoak hautematea. Umorea hizkuntzarekin egindako jokoetan oinarritu daiteke, edo kontzeptu eta egoeretan, edo bi aurrekoen konbinazioan. Egilearen ideologia eta gogo-aldarreak ere erakuts ditzake. Beraz, txistek hainbat motatakoak izan daitezke: nazioartekoak, kulturalak paralinguistikoak etab. Txiste motak sakonago ikusteko Zabalbeascoaren (2001, 259. orri) eta Martinez Sierraren (2009, 183. orri) sailkapenak ikusi.

Txistek baliokide zuzenik ez duenean, edukia itzuli beharrean, xede kulturalan hobe funtzionatuko duen antzeko txistea jarri behar da, itzulpenaren lehentasunei jarraituz hobe funtzionatuko duena.

Normalean garrantzia, funtzioa eta umore mota ez dira berdin mantentzen testu osoan zehar, eta bikoizketan ere aldatzen dira. Komedia itzultzerako orduan helburua honakoa izan behar da: «producir efectos cómicos siempre que sea posible» (Zabalbeascoa 2001, 257. orri.)

3. Alderdi praktikoa:

Atal honetan jarduera praktikoan murgilduko gara. Hasteko, jatorrizko testuari buruzko datu batzuk eta ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditut, eta horiekin batera, itzulpen prozesuari buruzko hainbat ohar gehitu ditut. Ondoren, itzulpena bera egongo da. Itzulpena, bikoizketarako konbentzioei jarraituz egin dut: formatu berezia eman diot, testua takeatu dut etab. Ondoren, itzulpen prozesuan aurkitutako arazoei eta horiei emandako konponbideei buruzko iruzkina gehitu dut. Bertan, bi atal daude: itzulpen fasean aurkitutako zailtasunak eta egokitzapen faseko arazoak.

Itzulpena nik egindako transkripzioaz lagunduta egin dut eta transkripzioa lanaren bukaeran txertatu dut.

a. Jatorrizko testuaren azterketa:

Jatorrizko testuaren egilea Michael Schur da. Ann Arboren jaio zen 1975ko urriaren 29an. Estatu Batuetako telebista ekoizle, gidoilari eta aktorea da. Komediazko programa eta telesailetan egiten du lan batez ere. *The Office*-n (2005), *Parks and Recreations*-en (2008) eta *Brooklyn Nine-Nine*-n (2013) lan egiteagatik da ezaguna. 2016an *The Good Place* telesaila sortu zuen eta landuko dudan kapitulua, «Everything is fine» izenekoa, idatzi zuen.

Telesaila, NBC kate estatubatuarrena da, baina guri Netflixen eskutik iritsi zaigu. Hainbat bertsio ditugu eskuragarri jatorrizko bandarekin batera: ingeleseko audio deskribapena, gaztelaniako bikoizketa, frantseseko bikoizketa eta Brasilgo portugeseko bikoizketa.

Komedia eta fantasiako telesaila da. Osozara 4 denboraldi ditu eta jada bukatuta dago; 2020ko urtarrilaren 30an izan zen azkeneko kapituluaren emanaldia.

Pertsonaia nagusiak Eleanor Shellstrop (Kristen Bell), Chidi Anagonye (William Jackson Harper), Jianyu Li/Jason Mendoza (Manny Jacinto), Tahani Al-Jamil (Jameela Jamil), Michael (Ted Danson), auzoaren arkitektoa, eta Janet (D'Arcy Carden), Toki Oeko informazio-laguntzailea, dira. Gai nagusia hil ondoko bizitza da, eta, horrekin lotuta, gai filosofikoak lantzen dira telesailean, hala nola bizitza eta heriotza, ona eta txarra etab., beti ere umorearekin. Trama nagusia pertsonaia horien hil ondoko bizitza da, eta bertan gaintzen dituzten arazo eta zailtasunak. Telesailaren ezaugarri garrantzitsua da tramak ezusteko norabide aldaketa (plot twist) ugari dituela.

Hautatu dudan kapitulua 2016ko irailaren 19an NBC kate estatubatuarran eman zen lehendabiziko aldiz, eta oso harrera ona izan zuen.

Lehenengo kapituluan, Eleanor, istorioaren protagonista, hil egin da eta existentziaren hurrengo fasera pasa da, hau da, hil ondoko bizitzara. Bertan, auzoaren arkitektoa Michael ezagutzen du eta hark bere heriotzaren berri ematen dio, eta hil ondoko bizitzaren funtzionamendua azaltzen dio. Bestetik, landuko dudan pasartean, jakiten da zer egin behar den Toki Onera joateko. Izan ere, pertsona batek bizitzan zehar egiten dituen ekintzek hil ondoko bizitzan gertatuko zaiona baldintzatzen dute, eta ona izan bada Toki Onera joango da, bestela, Toki Txarrera. Horrekin batera jakiten da arima bikiak

existitzen direla, eta auzo berean daudela. Eleanorrek bere arima bikia ezagutzen du, Chidi, etika irakaslea, eta, sekretu bat kontatzen dio: Eleanorrek akats batengatik bukatu du Toki Onean. Momentu honetan ikusten dugu dena ez dela Michaellek esan duen bezain perfektua eta pertsonaiek zailtasun, eta arazoei aurre egin beharko diete elkarri lagunduz. Antzaz umorezko telesail arrunt bat dirudiena oinarri filosofiko sakona duen saio bat dela ikus dezakegu telesailean aurrera egin ahala.

Itzulgaiaren ezaugarriak eta zailtasun nagusiak

Behin itzulgaia aurkeztuta testuaren ezaugarri eta zailtasun orokor batzuk aztertzen hasiko gara.

Bikoizketarako denez, idatzitako testua den arren ahoz esateko pentsatuta izan da, beraz, ahozkoaren markak ditu. Tonu orokorra arina da, umorezko telesaila delako, eta pertsonaien hizketa-moldeak tonu orokorrari laguntzen dio.

Halaber, ingelesak adierazkortasun handia dauka, hizkera kolokiala oso landuta du, esamolde, birao eta abarrez josita. Euskaraz hizkera kolokial hori ez dago hain hedatuta, eta askotan hitz erdaldunetara, Hegoaldean batez ere gaztelaniara, jotzen dugu hizkera espontaneo hori adierazteko. Horri lotuta esan beharra dago ingelesez ikus-entzunezkoetan erabiltzen den hizkera finkatuta eta kotsakratuta dagoela, aldiz, euskaraz, lengoaiia hori askoz ere gutxiago landu da eta finkatutako hizkera arrotza egiten zaio ikuslegoari. Hortaz, askotan naturaltasun falta leporatzen zaie euskarazko ikus-entzunezko mintzaldiei.

Telesailaren beste funtsezko elementu bat umorea da. Hainbat modutara azaltzen zaigu umorea; erreferentzia kulturalen bitartez, egoera barregarrien bitartez etab. Baina itzulpenean gehien eragingo duenak hitz jokoen presentzia da.

Aspektu kulturalak ere problematikoak izan daitezke. Adibidez, telesail honetan, dialekto edo azentu ezberdinetako pertsonaiak daude, baina nabariena Tahanirena da; pertsonaiek orokorrean Estatu Batuetako ingelesa hitz egiten dute, Tahanik aldiz, Ingalaterrako ingelesa.

Bukatzeko, ikus-entzunezkoen berezko zailtasunak aurkitzen ditugu, hau da, alderdi teorikoan aipatutako egokitzapenean kontuan izan beharreko sinkronia mota ezberdinek sortu ditzaketan zailtasunak.

Itzulpen prozesuari buruzko oharrak

Hasteko, itzultzen hasi baino lehen testua takeatu egin behar da, hau da, testua ondoren azalduko ditudan irizpide batzuen arabera zatitu behar da. Zatiketa horren arrazoia da, historikoki, bikoiztaileek testua buruz ikasi behar zutela, pertsonaien mugimenduei begira bikoizteko, eta hori egin ahal izateko, testua ezin zen oso luzea izan. Gaur egun, zatiketa lan-antolaketa egiteko ezinbestekoa da. Takeak estudio bakoitzean ezberdinak dira baina arau orokor batzuk daude (Marzà i Ibàñez, 2013):

- Take batean gehienez 5 lerro pertsonaia bakoitzeko (gehiago badira take doblea egin behar da).
- Aktore kopuru egokia takeko: bi edo hiru.
- Takeko 8-10 lerro gehienez eta gutxienez 5-6 lerro.
- Take baten iraupena: 40 bat segundo.

Bestetik, zatiketa egiteko narrazioa izan behar dugu kontuan. Hau da, ez dugu takea moztuko esaldi baten erdian, eszena aldaketa dagoenean take berri bat hasiko dugu, OFFetik ONera aldatzen denean take berria hasiko dugu etab. (Barambones, 2006, 79.orri)

Itzulpena egiteko, garrantzitsua da bikoizketarako itzulpenaz ari garela kontuan hartzea, eta itzulpen mota horrek ezaugarri berezi batzuk dituela, beste faktore batzuk izan beharko ditugula kontuan. Izan ere, testua ez da independentea, irudiarekin lotuta aurkitzen dugu ikus-entzunezko itzulpenaz ari garenean. Horrek esan nahi du testuak irudiarekin sinkronia mantendu behar duela, eta horretarako hainbat gauza izan behar ditugu kontuan: aktoreen gorputz eta aho mugimenduekin ahal den neurrian bat egitea, eta, denborak errespetatzea.

Itzulpen prozesuan baliatutako materialari dagokionez, jatorrizkotzat erabili dudan testua Netflixen dagoen kapituluaren audioa eta ingelerako azpтитuluen laguntzaz nik egindako transkripzioa dira. Irudia baliatu dut ere egokitzena egiteko.

Itzultzeko, frantseseko eta gaztelaniazko bikoizketa eta azpidatziak kontsultatu ditut, oso gutxitan kontsultatu baditut ere, zalantza zehatzak argitzeko. Izaniko arazoan atalean egindako kontsultak aipatuko ditut.

Bukatzeko, esan beharra dago itzulpenak bi fase izan dituela: alde batetik, testuaren itzulpena, batez ere transkripzioan oinarrituz egindakoa, sinkroniari hainbeste erreparatu gabe eginikoa. Eta bigarren fase bat egokitzapenean agertzen diren arazoetan zentratuz. Hala ere, itzulpena eta egokitzapena ezin dira banandu, eta ikusiko da bi faseetako arazoak nahasten direla.

b. Itzulpena: Everything is fine.

Dena ongi doa- Toki Ona 1x01

00:00:18:87

MICHAEL: Eleanor? Sartu zaitez.

MICHAEL: Kaixo, Eleanor. Michael naiz. Zer moduz zaude?

ELEANOR: Ongi. Eskerrik asko. O, galdera bat. Non nago? Nor zara, eta zer gertatzen da?

MICHAEL: A bai; zu, Eleanor Shellstrop, hilda zaude. Zure mundualdia amaitu da, eta orain, unibertsoko existentziaren hurrengo fasean zaude.

ELEANOR: Ongi. Ongi. Galdera batzuk ditut.

MICHAEL: Espero nuen.

ELEANOR: Nola hil nintzen? Ez dut oroitzen.

00:00:51:70

00:00:52:02 TAKE DOBLEA

MICHAEL: Bai, e, heriotzak lotsagarriak edo traumatikoak direnean, oroitzapenak ezabatzen ditugu trantsizio baketsua ahalbidetzeko. Seguru zaude jakin nahi duzula?

Ados, supermerkatu baten aparkalekuan zeunden. Eta botila bat erori zitzaizun: «Neska Bakartientzako Margarita Nahasketa» deitutakoa. Eta hura jasotzera makurtu zinenean, erosketa-orga ilara luze batek, horiek gordetzeko lekura bueltatzen ari zirela, kontrola galdu zuen eta harrapatu egin zintuen.

ELEANOR: Uf. Horrela hil nintzen.

00:01:26:52

00:01:26:55

MICHAEL: Ez, barkatu, ez dut amaitu. Ilararen lehen orgatxoari heltzeko gai izan zinen, baina errepidera bultzatu zintuen, eta «Tente-jarzina» izeneko erekzio-disfuntzio pilulak iragartzen zituen iragarki-kamioi batek jo eta hil zintuen.

Bitxia bada ere, lehenengo iritsi zen larrialdietako teknikaria zure mutil-lagun ohi bat zen...

ELEANOR: Ongi da, aski... Ulertu dut, milesker.

MICHAEL: O, ados, barkatu.

ELEANOR: Eta... nork zuen arrazoia? Honi guztiari buruz?

00:01:54:02

00:01:54:20 TAKE DOBLEA

MICHAEL: Ba, ikus dezagun. Hinduek arrazoi pixka bat, Musulmanek pixka bat, Judutarrek, Kristauek, Budistek... erlijio guztiek %5 asmatu zuten; Doug Forcettek izan ezik.

ELEANOR: Nor da Doug Forcett?

MICHAEL: Ba, Doug 1970eko hamarkadan Calgaryn bizi zen gazte drogazalea zen. Gau batean, mongiak hartu zituen eta bere lagunik onena Randyk galdetu zion: «Aizu, zer uste duzu gertatzen dela hil ostean?» Eta Dougek hitz egiten hasi eta %92 asmatu zuen. Benetan, ezin genuen entzuten ari ginena sinetsi. / Horkoa bera da. / Oso famatua da hemendik. / Zorte handia daukat hori izateagatik.

00:02:33:82

00:02:34:05

ELEANOR: Ba... Nire galdera nagusia... Banago... Hau da... /Edo...

MICHAEL: Ez da irakatsi zizuten paradisu edo infernuaren ideia. Baina orokorrean esanda, hil ondoko bizitzan, Toki On bat dago, eta Toki Txar bat.

Zu Toki Onean zaude. Ongi zaude, Eleanor. Toki Onean zaude.

ELEANOR: Uf, eskerrak.

MICHAEL: Bai, bai. Ados, paseo bat emango dugu?

ELEANOR: Poltsorik ekarri dut? Ez, hilda nago, egia. Noski.

00:03:15:32

00:03:20:82 TAKE DOBLEA

MICHAEL: Hau da funtzionamendua: Toki Ona auzoetan banatuta dago. Auzo bakoitzak zehazki 322 pertsona ditu, zeinak aukeratuak izan diren oreka harmoniko zoriontsu batean elkarrekin bizitzeko.

ELEANOR: Auzo guztiak berdinak dira?

MICHAEL: Ez, auzo bakoitza paregabea da. Auzo batzuetan beroa egiten du, beste batzuetan hotza. Batzuk hiriak dira, beste batzuk, ordea, landa eremuak. Baina guztietan, belar bakoitza, marigorringo bakoitza, xehetasun bakoitza biztanleentzat zehatz-mehatz diseinatu eta neurtu da.

00:03:52:62

00:03:53:07

ELEANOR: Jogurt izoztu denda asko daude.

MICHAEL: Bai. Hori da auzo guztietan jartzen dugun gauza bakarra. Jendeak jogurt izoztua maite du. Ez galdetu zergatik.

Hamaika galdera gehiago izango dituzu, badakit. Baina orain, lekua har ezazu. Bideoa hastear dago.

00:04:09:27

00:04:16:77 TAKE DOBLEA

MICHAEL (BIDEOAN): Kaixo guztioi. Eta ongi etorri zuen hil ondoko bizitzaren lehenengo egunera. Guztiak, sinpleki esanda, onak zineten. Baina nola dakigu onak zinetela? Nola egon seguru?

Bizirik zeundetenean, zuen ekintza bakoitzak balio positiboa ala negatiboa jasotzen zuen, ekintzak unibertsoan eragiten zuen on edo txar kopuruaren arabera.

Jan zenuten sandwich bakoitzak, erositako aldizkari bakoitzak, egin zenuten gauza bakoitzak efektu bat izan zuen, denboran zehar hedatu zena, eta, azkenean, on- edo txar-kopuru bat osatu zuena.

00:04:54:82

00:04:55:57 TAKE DOBLEA

Badakizu pertsona batzuk trafikoa dagoenean bazterbidean sartzen direla? Euren buruari esaten diote «Zer axola du? Inor ez da ikusten ari». Gu bai. Sorpresa!

Nolanahi ere, Lurrean emandako denbora amaitzen denean, zuen bizitzaren balio osoa kalkulatzeko dugu guztiz zehatza den neurketa-sistema baten bidez. Soilik puntuaziorik altuenak dituzten pertsonak, bakarrik onenetik onenak, hona etortzen dira, Toki Onera.

00:05:22:32

00:05:22:55 TAKE DOBLEA

«Besteei zer gertatzen zaie?» galdetuko duzue. Ez kezkatu horrekin. Gauza da zuek hemen zaudetela bizi zitekeen bizitza onenetako bat bizi izan zenutelako. Eta ez zarete bakarrik egongo. Zuen benetako arima bikia ere hemen dago. Hori da. Arima bikiak existitzen dira. Auzoko beste pertsona bat zuen benetako arima bikia da, eta eternitatea elkarrekin pasako duzue.

Beraz, ongi etorri zorion eternalera. Ongi etorri Toki Onera. Eskutik helduta lo egiten duten igarabek babestuta. Badakizue nola sentitzen zareten eskuak eusten dituzten bi igarabaren argazkia ikusten duzuenean? Horrela sentituko zarete egunero.

00:06:04:20

00:06:07:57

ELEANOR: Nor dago Toki Txarrean harrituko ninduen?

MICHAEL: Ba, Mozart, Picasso, Elvis... funtsean inoiz existitu den artista oro, Estatu Batuetako presidente oro, Lincoln izan ezik...

ELEANOR: Zentzua dauka. Eta Florence Nightingale?

MICHAEL: Hurbil egon zen, baina ez, ez zen sartu.

ELEANOR: Jende txundigarri hori guztia / hor behean, sinesteko zaila da.

00:06:28:62

00:06:28:75 TAKE DOBLEA

MICHAEL: Berriro ere, oso sistema selektiboa da. Pertsona gehienek ez dute hemen sartzea lortzen. Baina zu, heriotzaren korridoretik jende errugabea ateratzen zuen abokatua, berezia zara, Eleanor. Eta, bide batez, ongi etorri zure etxe berrira.

Perfektua da, ezta? Izan ere, Toki Onean pertsona bakoitzak bere benetako esentziarekin bat egiten duen etxea jasotzen du.

00:06:54:42

00:06:54:77

ELEANOR: Primeran. Beraz, suposatzen dut nire etxea, adibidez, etxe txiki maitagarri hau izatea horregatik dela; eta aldiz, beste pertsona batzuek, etxe handiagoak izan ditzaketela... Beste hori bezalakoak.

MICHAEL: Hori da. Asko pozten nau ulertzeak.

Ikus dezakezunez, barrualdea gustuko duzun moduan apaindu da, islandiar primitibo estiloan. O, o, eta, noski, pailazoak maite dituzu, beraz...

ELEANOR: Egia da, pailazoak maite ditut.

MICHAEL: Orain erakutsiko dizut hemengo bideo sistema.

00:07:27:92

00:07:30:70

Zure bizitzan gertatutako edozer gauza zure ikuspuntutik berrikusi dezakezu.

Hara. Hau da Ukrainan giza eskubideen alde egin zenuen misioa. Puntu mordo bat jaso zenuen hargatik. Buruan jarri zintuen.

O. Chidi, sartu zaitez.

CHIDI: Eleanor? Chidi Anagonye naiz, zure arima bikia.

ELEANOR: Primeran! Etorri hona.

MICHAEL: Bueno, orain barkaidazue. Beste pertsona batzuek arduratu behar naiz.

00:08:02:52

00:08:03:35

ELEANOR: Nongoa zara, Chidi?

CHIDI: Ba, Nigerian jaio nintzen, Senegalen hazi eta hezi, baina nire lanak mundu osotik eraman nau: Australia, Hong Kong, Paris... Eta zu?

ELEANOR: Ba, bueno... Jaio nintzen Phoenixen, Arizonan. Ondoren, ikastera joan nintzen Tempera, Arizonara. Eta ondoren etxera bueltatu nintzen, Phoenixera, Arizonara.

Nire hizkuntzan primeran mintzo zara.

CHIDI: O! Errealitatean frantsesez mintzo naiz. Baina leku honek esaten duzuna besteak ulertuko duen hizkuntza batera itzultzen du. Harrigarria da.

ELEANOR: Jo!

00:08:38:35

00:08:38:77

CHIDI: Eta orain gauza bat esan nahi dizut.

ELEANOR: Ados.

CHIDI: Eleanor. Bizitza osoa eman dut unibertsoari buruzko funtsezko egiak bilatzen. Eta orain, horiei buruz elkarrekin ikas dezakegu, arima-biki gisa. Izugarria da.

ELEANOR: Chidi, edozer dela ere nire ondoan egongo zara, ezta?

CHIDI: Bai noski.

00:09:03:67

00:09:03:75

ELEANOR: Zin egin. Esan: «Zin egiten dut ez dizudala inoiz huts egingo, inongo arrazoirengatik».

CHIDI: Eleanor, zin egiten dut ez dudala inoiz mina egingo dizun ezer egingo, ezta ezer esango ere.

ELEANOR: Primeran. Ze horiek ez dira nire oroitzapenak. Ez nintzen abokatua. Ez naiz inoiz Ukrainan egon. Pailazoak gorroto ditut. Akats handi bat egon da. Ez nuke hemen egon beharko.

CHIDI: Barkatu, zer?

00:09:34:05

00:09:45:05

CHIDI: Ziur zaude ez zarela zu?

ELEANOR: Bai, motel, guztiz ziur nago ez nintzela heriotza korridoreko abokatua, eta ez nituela pailazoen margolanak kolekzionatzen, ezta umezurtzak erreskatatzen ere. Izenean asmatu dute, baina gainerakoan ez. Hau da, norbaitek benetan *izarratu* du./Norbaitek *izarratu* du. Zergatik diot *izarratu*?

00:10:02:87

00:10:02:88

CHIDI: Biraoak esaten saiatzen ari bazara, ezin duzu. Suposatzen dut auzoko askok ez dutela gustuko, beraz, debekatuta dago.

ELEANOR: Hori *igelkeria* bat da.

CHIDI: Beraz, pertsona hori ez bazara, nor zara? Zertan egiten zenuen lan?

ELEANOR: Lan egiten nuen... salmentan.

00:10:18:20

00:10:18:42

NAGUSIA: Hemen bi produktu saltzen ditugu: NasaPRO eta NasaPRO Silver. Zaharrentzat dira. Legalki ezin diezu «sendagai» deitu, teknikoki ez dutelako / funtzionatzen, eta teknikoki klariona direlako. Beraz, egin behar duzuna...

ELEANOR: Nahi duzu pertsona zaharrei gezurra esatea eta sendagai faltsuak eroatera bultzatzea. Ulertzen dut. Zein da nire mahaia?

00:10:27:57

00:10:38:32

CHIDI: Beraz, zure lana zen adindunei iruzur egitea... Barkatu, gaixoei eta adindunei?

ELEANOR: Baina oso ona nintzen. Bost urte jarraian saltzailerik onena izan nintzen.

CHIDI: Baina hori okerragoa da. Esan nahi dut, zuk ikusten duzu zergatik den okerragoa, ezta?

00:10:53:35

00:10:55:47

CHIDI: Beharbada / proba bat da. Beharbada, Michaelengana joan eta egia esaten badiozu, proba gaingaituko duzu eta hemen geratu ahalko zara.

ELEANOR: Ezta pentsatu ere. Ezin naiz Toki Txarrera joatera arriskatu.

CHIDI: Bueno, baina agian ez da hain txarra. Lehenik informazioa eskuratuko dugu. Galdetuko dugu. Aizu, Janet?

JANET: Kaixo. Zertan lagun zaitzaket?

ELEANOR: Zer *garraio*? Nor zara zu?

00:11:16:67

00:11:16:77

JANET: Janet naiz. Toki Oneko informazio-laguntzailea naiz.

CHIDI: Datu-base ibiltaria da. Galdetu diezaiokezu unibertsoaren sorrerari buruz, historiari buruz...

ELEANOR: O, bazegoen mutil bat 2002an Avondalen, Arizonan. Bere izena Kevin Paltonic zen./ Gaya da?

JANET: Ez.

ELEANOR: Benetan? A. Suposatzen dut ez zuela nirekin txortan egin nahi.

JANET: Hori da.

00:11:39:75

00:11:39:92

ELEANOR: Bueno, berdin zait, ez nuen hain gustuko.

JANET: Bai, gustuko zenuen.

CHIDI: Bueno, Janet, galdera bat daukat.

JANET: Bota.

CHIDI: Nolakoa da Toki Txarra?

JANET: O, barkatu, justu gai horri buruz ezin dizuet hitz egin.
Orain bertan gertatzen ari den audio-klip labur bat besterik
ezin dizuet erreproduzitu.

CHIDI: Ongi.

EMAKUMEA (OFF): Hartzak bi aho dauzka!

ELEANOR: Bueno, ez dirudi bikaina.

00:12:06:12

00:12:08:92

ELEANOR: Mundu guztiak etxe erraldoia dauka nik izan ezik? Ongi,
plan bat behar dugu. Nire proposamena da atentzioa ez
deitzea, eta horrela ez dira akatsaz jabetuko.

CHIDI: Barkatu baina uste dut ezin zaitudala lagundu. Ez dut
gustuko gezurretan aritzea, eta ezin dizut gezurra esatea
aholkatu.

ELEANOR: Tira, iruzur txiki bat egitea eskatzen dizut. Bizitzan
gezur gupidatsuren bat esango zenuen. Zein zen zure lana?

CHIDI: Etika eta filosofia moraleko irakaslea nintzen.

00:12:31:77

00:12:32:17

ELEANOR: *Frutakumea.*

CHIDI: Tripako mina daukat. Utopia perfektu batean nago, eta... eta
tripako mina daukat. Hau izugarria da. E... Uste dut Michaeli
kontatu behar diogula.

MICHAEL: Michaeli zer kontatu?

ELEANOR: Michael? Aupa. Zertan ibili zara?

MICHAEL: Eleanor, Chidi, gustatuko litzaidake Tahani eta Jianyu ezagutzea. Arima bikiak dira eta ondoko bizilagunak.

00:12:55:37

00:12:55:80

TAHANI: Kaixo. Zure etxea maite dudala esan nahi dizut. Hain txikitxoa eta pottoloa da! Umeentzako jostailuzko etxetxo bat bezalakoa da, edo arratoi familia batena, edo txakur txiki batena. Maite dut. Hain goxoa eta minimalista. Zu bezala. Bup.

MICHAEL: O!

ELEANOR: O! Bup egin didazu.

TAHANI: Bai.

ELEANOR: Zeinen atsegina.

00:13:18:92

00:13:19:12 TAKE DOBLEA

MICHAEL: Tahanik eta Jianyuk ongiatorri-festa txiki bat egingo dute gaur gauean, eta auzo osoa gonbidatu dute.

TAHANI: Festak egitea eta gonbidatuak izatea maite dut. Baietz, Jianyu?

A, bai, bide batez, Jianyu monje budista da, eta isiltasun-kode zorrotza betetzen du. Hortaz, irribarrez eta buruarekin baietz egiten ikusten duzuenean, hori da poztasunez salto egiteko duen modua. Ezta, maitea?

Beraz, gaur gauean elkar ikusiko dugu?

ELEANOR: Noski.

CHIDI: Bai.

00:13:48:62

c. Itzulpen arazoei eta horiei emandako konponbideei buruzko iruzkina:

1. Fasea: itzulpena.

Hasteko, hiztegiaren aukeraketarekin zalantzak izan ditut. Good Place izenaren itzulpenerako hainbat aukera izan nituen hasieran: Toki On, Leku On eta Alde On. Erabakia hartzeko beste hizkuntza batzuetan nola itzuli den begiratu nuen. Horretarako lehen aipatu ditudan gaztelaniazko eta frantsesko bikoizketa eta azpidatziak kontsultatu nituen, eta ikusi nuen gaztelaniaz Lado Bueno (Alde Ona) deitzen diotela, eta frantsesez Bon Endroit (Toki/Leku Ona). *Place* alde baino, toki edo leku da, baina belarrira hobeto ematen zidan alde ona. Hala ere, oharrak jaso ondoren eta hausnarketa egin ondoren alde ona baztertzea erabaki nuen. Alde on eta alde txar erabiltzen badugu teleasailean geroago aipatzen den bitarteko lekua izendatzeko tarteko aldea ez duelako funtzionatzen. Bestalde, toki/lekuk inguru fisikora garamatza; alde hitzak, aldiz, ezaugarri batetara eraman gaitzake, zerbaiten alde on edo txarra esaten dugu normalean. Ondoren, Toki eta Lekuren artean erabaki behar izan nuen, eta azkenean Toki On eta Toki Txar erabiltzea erabaki nuen, hobeto ematen zidalako belarrira.

Hiztegiaren aldetik oso espezializatua ez den arren, hainbat termino agertzen dira. Adibidez, hasieran EMT siglak agertzen dira. Horiek Emergency Medical Technician esan nahi dute. Arazoa da euskaraz ez dagoela horrelako laburpenik eta larrialdietako teknikaria erabili dut. Kasu honetan egokitzapenerako ez da arazo bat izan jatorrizkoa baino luzeagoa den arren, baina gerta liteke. Horrekin batera, ingelesez euskaraz ez dauden edo hain hedatuta ez dauden terminoak badaude ere: shopping cart collection area adibidez, euskaraz «horiek [orgatxoak] gordetzeko lekura» jarri dut, parafrasia egin behar izan dut ez dagoelako terminorik. Garraiobideen esparruko termino bat ere aurkitzen dugu: *breakdown line*. Baliokidea aurkitzea ez da erraza izan. Hasieran, nik sortu nuen horren baliokidea zen terminoa, antzeko terminoetan oinarrituz: larrialdietarako erreia, ez nuelako baliokide egokirik aurkitzen. Azkenean, gaztelania bitartekotzat erabilia baliokideak bilatzea erabaki nuen eta garraiobideen gaztelania-euskara, euskara-gaztelania glosario bat baliatu dut (IVAP, 1998). *Breakdown lane* gaztelaniaz *carril de emergencias* bezala itzultzen dute bikoizketan, baina aurkitu nuen *breakdown lane* gaztelaniaz *arcén* deitzen duguna izendatzeko erabiltzen dela. Beraz, azkenean «bazterbide» erabiltzea erabaki dut.

Zailtasun lexikoekin jarraitzeko, badaude kapituluan eta telesailean zehar askotan errepikatzen diren terminoak, hil ondoko bizitzarekin zerikusia dutenak hain zuzen ere. Hasteko, *afterlife* esateko ez dago hitz bakarreko terminorik, ez du izen bat, parafraisi bat erabiltzen da: hil ondoko bizitza. Horren arazoa da bikoizketarako luzeegia izateko aukera daukala, eta gainera, kapituluan behin baino gehiagotan erabiltzen da, beraz, kasu bakoitzean aztertu beharko dut zein den konponbiderik onena. Arazo hori egokitzapenaren faseari dagokio, baina aurreratu dezaket ez duela arazorik eman. Honekin lotutako beste termino batzuk *eternity* eta *soulmate* dira. Hurrenez hurren eternitatea eta arima bikiarekin itzuli ditut.

Beste batzuetan zailtasun lexikoa ez dugu izenekin topatzen, aditzekin baizik. Adibidez, «He got high on mushrooms» itzultzeko «mongiak jan zituen» jarri dut. Euskaraz *get high* horretarako drogatu erabiliko genuke, baina «perretxikoekin drogatu» esaldiak ez zuen ongi funtzionatzen; horregatik mongiak jan erabili dut, mongiak hitza erabiltzean ulertzen delako drogatzeko intentzioa zegoela, eta gainera, kolokialtasuna gehitzen dio, lortu nahi nuen tonuari lagunduz.

Aditzekin jarraituz, argi dago alde horretatik ere ingelesak aberastasun handia duela. Aditz batzuek ez dute baliokide zuzenik euskaraz eta parafraisien bitartez adierazi behar dira: *lie low, notice, fudge, nodding, scare into...* Gehienetan ez dugu baliokide perfekturik aurkituko eta jatorrizko aditzak zuen esanahi osoa ezingo dugu jaso. Azkeneko aditza hartuko dut adibidetzat. Jatorrizko esaldia «[...] scare them into buying fake medicine» da. Hau da, aditzak beldurraren bidez zerbait egitera bultzatu esan nahi du. Bikoizketarako den itzulpenean ezin dugu azalpen osoa sartu, beraz, nire itzulpena honakoa da: «[...] sendagai faltsuak erostera bultzatzea.» Ikusten denez beldurraren faktorea desagertu da.

Orain arte ikusi dugunez, ingelesa oso hizkuntza aberatsa da lexikoaren aldetik, eta horregatik oso adierazkorra da; bizitasunean laguntzen duten esamolde eta hitz kolokial ugari ditu, eta euskarak kolokialtasun ugari dituen arren, gaur egungo ingelesezko hizkera kolokialean erabiltzen diren esamolde eta hitzen baliokide zuzenik ez dauka. Adibideak: «Cool cool»; «there we go»; «wait, what? »; «cream of the crop.» Horietarako «Ongi. Ongi»; «Hara.»; «Barkatu, zer?» eta «onenetik onenak» erabili ditut. Baliokide zuzenik ez izatearen beste adibide batzuk dira ondoren, hitz jokoak aztertzean,

aipatuko ditudan biraoak: «What the fuck», «bull-shit» etab. Euskarazko hitz itsusiak ez dira inolaz ere esamolde horien baliokideak.

Sintaxiaren aldetik esan beharra dago estilo zuzeneko elkarrizketa denez, eta orokorrean esaldi motzak direnez, ez dudala zailtasun handirik aurkitu, baina erlatiboekin kontuz ibili behar izan dut. Hasieran, erlatiboak zituzten esaldiak erabili nituen baina zuzenak izan arren bikoizketarako baliagarriak ziren planteatu behar izan nuen, ahozkoan erabiltzeko korapilatsuak izan zitekeelako, eta batzuk aldatu izan ditut.

Adibidez, esaldi hau sinpletu dut: «And Doug just launched into this long monologue where he got like 92% correct» esaldia horrela itzuli nuen hasieran: «Eta Dougek bakarrizketa luze bat hasi zuen, non %92 asmatu zuen». Baina azkenean hau da erabili dudana esaldia: «Eta Dougek hitz egiten hasi eta %92 asmatu zuen». Azkeneko esaldiak askoz hobe funtzionatzen du bikoizketarako, menpekota kenduta ulertzeko eta esateko errazagoa delako.

Kapitulu honetan bestelako arazo bat aurkezten zaigu; orain ikusiko dugun arazoa testu barneko koherentziarekin du lotura. Izan ere, Chidi eta Eleanor elkar ezagutzen ari direnean Eleanorrek Chidiri honakoa esaten dio: «*Your English is amazing*». Itzulpena azpidazkietarako izango balitz «ingelesez primeran egiten duzu» esango genuke, baina bikoizketan horrek ez du zentzurik biak euskaraz hitz egiten ari direlako. Dena den, euskaraz ari diren arren ez du zentzu handirik Chidik eta Eleanorrek euskaraz hitz egiten ari direla esateak, Chidik Senegalekoa dela aipatu berri baitu, eta Eleanorrek argi utzi baitu Arizonakoa dela. Nik hasieran «Primeran hitz egiten duzu euskaraz» esaldiarekin itzuli nuen, baina gero, aldatzea erabaki nuen oso koherentea ez zelako. Ez zegoen arazoa ekiditeko edukitik aldentzeko aukerarik, ondoren, Toki Onak esaten dutena besteak ulertuko duen hizkuntza batera itzultzen duela esaten baitute eta koherentzia mantendu behar baitugu. Erabaki bat hartu baino lehen beste hizkuntzetan zer egin zen bilatu nuen:

	Bikoizketa	Azpidazketa
Gaztelaniaz	Hablas muy bien mi idioma	Hablas un inglés perfecto
Frantsesez	Tu parles très bien notre langue	Ton anglais est incroyable

1. Taula. Your english is amazing esaldiaren itzulpena.

Ikusten denez, bi hizkuntzetan itzulpena bikoizketarako zenean nire/gure hizkuntza aipatzea erabaki dute, bikoizketaren hizkuntza aipatu gabe; eta azpidazketan aldiz, ingelesa aipatzen dute. Beraz, nik gauza bera egitea erabaki nuen. Horretarako, hainbat aukera hartu nituen gogoan: «elkar ongi ulertzen dugu», «primeran egiten duzu nire hizkuntzan», «nire hizkuntza menperatzen duzu». Azkenean, erabaki nuen egokitzapena lantzearekin batera erabakiko nuela, eta azkenean «nire hizkuntzan primeran mintzo zara» erabili dut, sinkronia hobekien errespetatzen duen esaldia delako.

Orain, itzulgaiaren elementu garrantzitsu bat aztertuko dut: hitz jokoak. Aurretik aipatu dudanez, umorezko telesaila da hau, eta hitz jokoek umorean eragin handia dute; horregatik, lehenetsun handia zuen hitz jokoak mantentzea. Jarraian, landutako pasarteetan itzuli behar izan ditudan hitz jokoak aztertuko ditut:

Hasieran, «*Encorge-ulate*» izena aurkitzen dugu. Kontestua oroitaraztearren: Michaellek Eleanorri esan berri dio heriotzak lotsagarriak direnean horien oroitzapenak ezabatzen dituztela. Ondoren, zutitzearen-disfuntzioaren aurkako izen barregarria duen pilulak iragartzen zituen kamioi batek hil zuela esan dio. Izen barregarriak egoera are lotsagarriagoa izatera laguntzen du, horregatik, hitz jokoa mantentzea garrantzitsua iruditzen zitzaidan. Kasu honetan ere beste hizkuntza batzuetan zer egin zuten begiratu izan dut:

	Bikoizketa	Azpidazketa
Gaztelaniaz	tiesamizina	trempadora
Frantsesez	çavamonter	engorge-culer

2. Taula. Encorge-ulate beste hizkuntzetan.

Ikusi dezakegunez, bi hizkuntzetan aukera ezberdinak erabili dituzte bikoizketan eta azpidazketan, beraz, lau hitz joko ezberdin daude. Nik eredu gisa gaztelaniazko bikoizketan erabilitakoa erabiltzea erabaki nuen. Hau da, nire itzulpenak botikaren izenen antza izatea erabaki nuen, hitz joko ulergarriena izango zelakoan. Horretarako egin nuen lehenengo gauza izan zen medikamentuen izenak bilatu, botiken izenen ahalik eta antza gehiena izateko. Botiken izenen atzizkiak bildu nituen: -pril, -timana, -azina, -pina etab.

Ondoren, erekzioarekin zerikusia duten hitzak bilatzen hasi nintzen, esamolde kolokial bat topatu nahian, eta tente jarri edo tentetzea bururatu zitzaizkidan. Bukatzeko, botiken atzizkien artean hitz jokoa egiteko gehien gustuko nuena aukeratu nuen eta azkenean, «Tente-jarzina» izena sortu nuen.

Hala ere, euskaldunok, normalean, botiken izenak ez ditugu euskaraz topatuko, normalean ingelesez, frantsesez edo gaztelaniaz egongo dira. Hortaz, konponbidea ez da hartzaileentzat errealistena izango, baina hitz jokoa euskaraz egin nahi nuen, azken finean lan honekin euskarazko produktu bat sortu nahi nuelako, txiste, hitz joko eta bestelakoak euskaraz eginez.

Behin aurreko hitz jokoa ikusita, telesail osoan errepikatzen diren, eta istorioan eragina duten hitz jokoak aztertuko ditut. Izan ere, Toki Onean ezin dira biraoak esan eta ondorioz, auzokide batek, normalean Eleanorrek, hitz itsusiak esaten saiatzen den bakoitzean Toki Onaren eraginez hitz itsusi horien antzeko hitzak esaten ditu esan nahi zituen hitzen orde. Ingelesez adibidez, *fuck* orde *fork*, *shit* orde *shirt*, eta *bitch* orde *bench* esaten dituzte. Horiek garrantzitsuak dira, askotan esaten direlako, istorioan eragina dutelako, elementu umoristikoak direlako eta fenomeno hori ematen dela aipatzen delako; beraz, ezinbestekoa zen hitz joko horiek mantentzea.

Horretarako saiatu naiz kasu guztietan euskarazko biraoen antzeko hitzak bilatzen. Arazoa da euskarazko «hitz itsusiak» ez direla bereziki itsusiak, lehen aipatu dudanez ez dira ingelesezko birao eta esamoldeen baliokideak, beraz, horiek leuntzea ez du hainbesteko zentzurik. Bestetik, Hegoaldean, euskaraz ari garenean, askotan, horrelako hitzak esateko gaztelaniazko hitzetara jotzen dugu, hitz horiek potoloagoak direlakoan. Gainera, aurretik esan dudanez, euskaraz hizkera hori ez dago hain landuta, eta adibidez hitz potoloak ditugun arren, ez ditugu erabiltzen ezta ezagutzen ere sarritan. Hala ere, pasarte honetan agertzen diren hitz jokoak euskarazko biraoekin sortu ditut, aurreko hitz jokoa aztertzerakoan aipatu dudan arrazoi beragatik, hots, produktu osoa euskaraz egin nahi nuela, eta honakoak dira emaitzak:

«*Somebody forked up*»: leundu gabe *somebody fucked up* da, hau da, norbaitek izorrratu du. Birao gogorragoa erabili nahian «norbaitek joritu du» idatzi izan nuen hasieran, «joritu» *jodituren* orde jarritz. Arazoa da euskaraz *joditu* aditza ez dagoela onartuta, azken finean gaztelania delako, baina erabili egin egiten da. Beste aukera bat

izorratu hitzarekin hitz jokoa sortzea zen, eta azkenean hori egitea erabaki nuen, euskarazko hitzak erabiltzea hobetsi nahi nuelako. Errimak bilatuz «izarratu» aditza aurkitu nuen. *Izarratuk* izarrez bete esan nahi du, eta izorratuaren oso antzekoa den hitza denez primeran datorkit. Hortaz, emaitza honakoa da: «Norbaitek izarratu du.»

«*That's bull-shirt*» esaldiarentzat konponbide polita aurkitu nuela uste dut. *Bull-shiten* baliokidetzat ergelkeria erabili dut, eta hitza leuntzeko igelkeria bururatu zitzaidan. «Hori igelkeria bat da» esaldia da bukaerako emaitza.

«*What the fork*»: hau izan zen zailena. Lehenengo bertzio batean «zer demontre» esaldiarekin itzuli nuen, baina hitz jokoa galtzen zenez beste zerbait bilatu behar izan nuen. Azkenean konponbidea aurkitu nuen: *What the fuck!* itzultzeko «Zer arraio!» erabiltzea bururatu zitzaidan, eta azken hori leuntzeko «Zer garraio!» erabiltzea erabaki nuen.

«*Mother forker*» itzultzeko «frutakumea» erabili dut. Kasu honetan ez dut zalantzarik izan.

Azkenean, biraoen itzulpenarekin nahiko pozik geratu naiz, baina hala ere, lehen aipatu dudanez, euskarazko hitz gordinak ez dira ingelesezkoak bezain itsusiak, ondorioz, horiek leuntzeak zentzu gutxiago dauka.

Bukatzeko, jatorrizko testuaren azterketan aipatutako dialektoarekin zer egin dudan komentatuko dut. Esan dudanez, telesailean Estatu Batuetako ingelesa mintzo dute pertsonaia guztiek Tahani Al-Jamilek izan ezik. Tahani Ingalaterrakoa da eta azentu oso nabaria dauka, gainera, jatorriak pisu handia dauka bere nortasunean. Hasiera batean Euskal Herriko dialekto bat hautatu eta bere dialektoaren baliokidetzat erabiltzea pentsatu nuen, baina lehen aipatutako testu barneko koherentziari begira, Eleanorrek eta Chidik euskaraz ari direla aipatzeak bezain zentzu gutxi dauka horrek. Izan ere, ezin da horrelako baliokidetzarik egin, batez ere pertsonaiek esaten badute nongoak diren. Beraz, dialektoa neutralizatzea erabaki nuen. Hala ere, itzulitako pasartean ez dagoen arren, kapituluan, pixka bat aurrerago, Eleanorrek aipatzen du Tahanik Ingalaterrako ingelesean hitz egiten duen bakarra dela, eta pasarte hori itzuli ahal izateko, Tahaniren hitz egiteko moduak zerbait aipagarria izan behar du. Kasu honetan gaztelaniazko bikoizketa kontsultatu dut, eta ikusi dut Tahaniren hizkera dotoreago egitea erabaki zutela, eta Eleanorrek aipatzen duela: *¿Y por qué habla en plan estirado?* Lehen aipatu dudan hurrengo eszena horretan.

Itzulitako pasarteetan Tahanik ez du asko hitz egiten, beraz, hiztegi aldetik ezin izan diot marka askorik jarri. Uste dut kasu honetan bikoiztailearen lana izango litzatekeela Tahaniren hizkerari bereizgarri bat ematea.

2. Fasea: egokitzapena.

Hurrengo pausua izan da egindako itzulpena hartu eta bideoarekin batera esaldiak banaka erreparatuz joatea, eta itzulpena bideoarekin sinkronizatzen saiatzea. Nire testua irudiarekin ahalik eta gehien sinkronizatzeko aldaketa ezberdinak egin behar izan ditut, batzuetan ezpain-sinkronia mantentzeko, besteetan isokroniagatik, eta besteetan sinkronia zinesikoagatik. Orain, prozedura guztiak aztertuko ditut eta horretarako aldatu behar izan ditudan pasarteetan lehenengo bertsioak azken bertsioako esaldiekin alderatuko ditut. Adibideak jarriko ditut prozedura bakoitzean.

Esan dudanez, aldaketa batzuk ezpain-sinkronia mantentzeko egin ditut, hau da, saiatu naiz ahoarekin egiten dituzten mugimenduei ahalik eta gehien hurbiltzen. Pasarte honetan lehen plano asko daude, eta horregatik sinkronia hau lantzea komeni da. Hala ere, teoriako 2.b atalean aipatu dudanez, ikusi da ez dela beharrezkoa zehaztasun handia. Hau lantzen saiatu naiz bereziki hitz motzak zirenean, interjekzioak zeudenean edo ahoaren mugimenduak oso argiak zirenean, adibidez esaldien bukaeretan.

Adibidez, kasu honetan, esaldiaren elementuen ordena ez da ohikoena, baina hasieratik, bikoizketan pentsatzen nuela, hitzen ordena aldatu nuen Eleanorren ezpain eta mugimenduekin bat egiteko:

Ba, bueno... Jaio nintzen Phoenixen, Arizonan. Ondoren, ikastera joan nintzen Tempera, Arizonara. Eta ondoren etxera bueltatu nintzen, Phoenixera, Arizonara. Garrantzitsua zen esaldien bukaeran Arizona esatea; alde batetik ezpainen mugimenduan argi ikusten delako Arizona esaten ari dela, eta bestetik, gorputzarekin ere esaldiaren doinua markatzen duelako.

Beste kasu batzuetan arazoa izan da hasierako itzulpena luzeegia zela, hau da, isokronia apurtzen zuela. Isokronia, lehen esan dudanez, itzulpena pertsonaien berbaldien luzera egokitzea da. Izan ere, ingelesez hitz gutxirekin esaten direnak itzultzeko, batzuetan, hitz asko, denbora asko, behar dugu euskaraz.

Kasuaren arabera, esaldia laburtzeko prozedura ezberdina erabili dut; batzuetan hitzen bat kentzearekin nahikoa izan da, beste batzuetan sinonimo motzagoak bilatu ditut, eta beste batzuetan esaldiaren ordena guztiz aldatu behar izan dut.

Kasu honetan adibidez hitzak ezabatzearekin nahikoa izan da:

*Ongi, plan bat behar dugu. Nire proposamena da atentzioa ez deitzea, eta horrela, **espero dezagun**, ez dira akatsaz jabetuko. -> Ongi, plan bat behar dugu. Nire proposamena da atentzioa ez deitzea, eta horrela ez dira akatsaz jabetuko.*

Ondorengo hauetan berriz, hitzak kendu ordeztan, esanahi bera, edo antzekoa duten hitzekin ordezkatu ditut:

*A bai; zu, Eleanor Shellstrop, **hil egin zara**. -> A bai; zu, Eleanor Shellstrop, **hilda zaude**.*

*Ulertu dut, **eskerrik asko**. -> Ulertu dut, **milesker**.*

*Auzo guztiek honen **antza bera dute**? -> Auzo guztiak **berdinak dira**?*

Azkeneko hauetan esaldien elementuen ordena aldatu dut laburtu ahal izateko. Aldaketa hauek aurrekoetatik ezberdintzen dira, aldaketa handiagoak direlako, eta konplexuagoak direlako, izan ere, kasu batzuetan aldaketa bat baino gehiago egin behar izan dut:

Lo dauden bitartean eskuak heltzen dituzten igarabek babestua. -> Eskutik helduta lo egiten duten igarabek babestua.

Adibide honetan aldaketa ez da bakarrik izan isokroniatik; kasu honetan ulergarritasunak ere garrantzia izan du. Izan ere, lehenengo bertsioan aditzek esaldia oztopatzen zuten, eta bigarren bertsioa motzagoa izatearekin batera, sinpleagoa eta ulergarriagoa da.

Hau da, norbaitek benetan joritu du. [...] Zergatik ezin dut «joritu» esan? -> Hau da, norbaitek benetan izarratu du. Norbaitek izarratu du. Zergatik diot izarratu?

Hainbat aldaketa daude pasarte honetan ere. Hasteko, hitz jokoa aldatu egin dut, aurretik aipatu bezala. Bestetik, *Why can't I say fork?* Itzultzeko ezin dut *Zergatik ezin dut izarratu esan?* jarri, luzeegia zelako. Horregatik, *Zergatik diot izarratu?* Erabili dut.

Ez du guztiz jatorrizkoak dioena esaten, baina mezuarekin bat egiten duela iruditzen zait, eta ongi sartzen da.

Unibertsoaren sorrerari buruz, historiari buruz, eta edozerri buruz galdetu diezaiokezu. -> Galdetu diezaiokezu unibertsoaren sorrerari buruz, historiari buruz...

Honetan, luzeraz gain, arazoa bestelakoa izan da. Izan ere, Chidi hitz egiten ari da, eta berak bukatu baino lehen Eleanor hitz egiten hasten da. Horregatik, *galdetu diezaiokezu* aurrera pasatu behar izan dut, bestela moztu behar nuelako eta ez zelako mezua ongi ulertuko.

O, 2002an Avondalen, Arizonan, bizi zen mutil bat zegoen. Bere izena Kevin Paltonic zen. Gaya da? -> O, bazegoen mutil bat 2002an Avondalen, Arizonan. Bere izena Kevin Paltonic zen./ Gaya da?

Honetan ere hitzen ordena aldatu behar izan dut laburtu ahal izateko. Gainera, hitzen ordenarekin ulergarriagoa den esaldia sortu dut, eta bikoizketarako hobeto funtzionatzen du.

Beste esaldi batzuekin gertatu zait itzulpena jatorrizkoa baino luzeagoa zela, baina kasu horietan pertsonaiak OFFean, bizkarra ematen edo plano urrunean zeuden, hau da, ez zitzairen ahoa ikusten. Beraz, itzulpen horiek baliagarriak izan daitezke. Adibidez:

Hau da funtzionamendua: Toki Ona auzoetan banatuta dago. Auzo bakoitzak zehazki 322 pertsona ditu, zeinak aukeratuak izan diren oreka harmoniko zoriontsu batean elkar bizitzeko.

Beste kasu batzuetan kontrakoa gertatu zait: itzulpena egiterakoan esaldia motzegia egin nuen eta hitzak sartu behar izan ditut isokroniaren mesedean:

(Itxaron), zer? -> Barkatu, zer? Zerk bakarrik ez zuen funtzionatzen ikusten delako Chidik bi hitz esaten dituela. (Wait, what?)

Aldaketekin bukatzeko, lehen aipatu dudanez, batzuetan aktoreen mugimenduekin bat egiteko egin behar izan ditut aldaketak. Hau da, sinkronia zinesikoa errespetatzeko.

Adibide honetan elementuen ordena aldatu behar izan dut aktorearen mugimenduekin koherentzia mantentzeko:

«*Neska Bakartientzako Margarita Nahasketa*» deitutako botila bat erori zitzaizun.
->Eta botila bat erori zitzaizun: «*Neska Bakartientzako Margarita Nahasketa*»
deitutakoa.

Izan ere, Michael kakotxen artean dagoena irakurtzen ari da, beraz, esaldiaren bukaeran egon behar da, esaldiaren bigarren zatian begiratzen baitu liburura.

4. Ondorioak

Lan honetan ingelesetik euskarara egindako ikus-entzunezko itzulpena aztertu dut, *The Good Place* telesailaren lehenengo kapituluaren pasarte baten itzulpena eta bertan aurkitutako zailtasunak oinarri gisa hartuz.

Kapitulua bikoizketarako itzuli dut, eta horrek balio izan dit itzulpen mota horren berezitasun eta zailtasunei buruz ikasteko. Bikoizketarako prozesua konplexua da, eta hainbat zeregin eskatzen ditu: hasteko, jatorrizko testua transkribatzea (audioaren transkribapena egin dut ingelesezko azpidatzen laguntzaz), testua takeatzea (hainbat arau jarraituz: denbora-mugak, lerro kopurua etab.), euskarara itzultzea eta, bukatzeko, sinkronia kontuan izanda testua egokitzea, izan ere, audioa eta irudiaren arteko lotura koherentea izan behar da. Testuak ahozkotatasunaren markak izatea ere garrantzitsua da, azken finean ahoz esateko pentsatuta dago. Hori guztia kontuan hartuz, ikus-entzunezko itzulpenean, eta, zehatzago izateko, bikoizketarako itzulpenean murgiltzeko aukera egokia eman dit lan honek.

Pasarte honen itzulpenarekin ingelesa-euskara hizkuntzen konbinazioaren hainbat zailtasun ikusi dugu. Bereziki interesgarria iruditu zaidana kolokialtasunaren baliokidetasun falta da, eta horren arrazoia bikoizturiko produktuen eskasia da. Ikusi izan dugunez, euskaraz ez dugu ingelesaz erabiltzen diren kolokialtasun marken baliokide zuzenik, horregatik, horien itzulpena zaila izan daiteke. Adibidez, biraoekin gertatu dena esanguratsua da.

Izan ere, umorezko produktuetan kontuan izateko parametro ugari daude, eta nire lanak erakutsi duenez, esaterako, hizkuntzan oinarritutako hitz-jokoek buruhaustek eragiten dituzte. Adibidez testu honetan hitz jokoak biraoekin egiten dira, hala nola,

izorratu/izarratu, putakumea/frutakumea, ergelkeria/igelkeria etab., eta ikusi izan dugu, euskaraz hitz joko horiek ez dutela ingeleraz bezain ongi funtzionatzen, euskarazko leundu gabeko biraoak ez direlako jatorrizkoak bezain itsusiak, hala ere, emaitza polita lortu dudala uste dut, nire helburua lortu dudalako: hitz joko horiek euskarazko hitzekin sortzea.

Esan dudanez, itzulpen prozesua ingelesetik euskarara egin dut, baina kasu batzuetan kontsulta iturri gisa erabili ditut gaztelaniazko eta frantseseko bikoizketa eta azpidatziak. Inportantea da itzultzaileak bere esku dituen baliabide guztiak baliatzea, eta horiek oso erabilgarriak izan dira sortu zaizkidan zalantza batzuk argitzeko. Saiatu naiz kasu guztietan lau bertsioak kontsultatzen aukera ezberdinak ikusteko.

Bukatzeko, lanaren helburu bat itzulpen honek merkatuan izango lukeen lekua ikustea zen, eta ikusi dugu momentu honetan ez lukeela lekurik izango, gaur egun, EITBk ez eta Netflix moduko plataforma digitalek ez dutelako euskarara bikoiztutako telesailik emititzen, hau da, ez dago horrelako produktuen eskaintzarik, baina eskaria handia izan liteke, produktu egokiak aukeratuz. Izan ere, horrelako produktuen beharra dagoela uste dut, euskara sustatzeko primerako bidea iruditzen baitzait, baina batez ere, horiek ikusleei iristea ziurtatu beharko genuke, eta horien kontsumoa sustatu beharko genuke. Hori lortu ahal izateko produktu erakargarriak sortu behar dira, eta horretarako kalitatea bermatzea eta produktuei lekua egitea ezinbestekoa da.

Bibliografia

- Alkiza, X. (2020ko martxoaren 15a). Planifikatutako abandonu baten historia. (G. B. Mitxelena, elkarrizketatzailea) Sarean: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2681/euskarazko-bikoizketa>
- Amezaga, J. (2013ko urtarrila-apirila). Euskal telebista 30 urteren ostean. *Jakin*, 194/195, 19-46.
- Barambones, J. & Zabalondo, B. (2006). *Ikus-entzunezko itzulpena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Beraetxe, I., & Alkiza, X. (2019ko ekainaren 4a). BIEUSE: Bikoizketa ez dago krisian, euskarazko bikoizketa dago krisian. (Euskaltzaindia, elkarrizketatzailea) Sarean: <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri/5857-bieuse-bikoizketa-ez-dago-krisian-euskarazko-bikoizketa-dago-krisian>
- Ferreira, M. (2019ko apirilaren 17a). Euskal bikoizketaren krisia: desagertzeko zorian dagoen apustu politikoa. *Eldiario.es*. Sarean: https://www.eldiario.es/norte/kulturon/Euskal-bikoizketaren-krisia-desagertzeko-politikoa_6_889321060.html
- Larrinaga, A. (2007). Euskarazko Bikoizketaren Historia. *Senez*, 34, 83-102.
- Martínez Sierra, J. (2009ko uztaila). Doblar o subtítular el humor, esa no es la cuestión. *The Journal of Specialised Translation*, 12, 183. Sarean: https://www.jostrans.org/issue12/art_martinez_sierra.pdf
- Marzà i Ibáñez, A. e. (2013). Las normas profesionales de la traducción para el doblaje en España. *TRANS. REVISTA DE TRADUCTOLOGÍA*, 17, 40-41. Sarean: http://www.trans.uma.es/trans_17/Trans17_035-050.pdf
- Zabalbeascoa, P. (2001). *La traducción para el doblaje y la subtítulos* (63. bol.). (M. Duro, Ed.) Madrid: Cátedra, signo e imagen.

1.go Eranskina

Pasartearen transkripzioa

Everything is fine- The Good Place 1x01

MICHAEL: Eleanor? Come on in.

MICHAEL: Hi, Eleanor. I'm Michael. How are you today?

ELEANOR: I'm great. Thanks for asking. Oh, one question. Where am I? Who are you, and what's going on?

MICHAEL: Right, so you, Eleanor Shellstrop, are dead. Your life on Earth has ended, and you are now in the next phase of your existence in the universe.

ELEANOR: Cool. Cool. I have some questions.

MICHAEL: Thought you might. [chuckles]

ELEANOR: How did I die? I don't remember.

MICHAEL: Yes, um, in case of traumatic or embarrassing deaths, we erase the memory to allow for a peaceful transition. Are you sure you want to hear?

All right, so you were in a grocery store parking lot. You dropped a bottle of something called, "Lonely Gal Margarita Mix for One." And when you bent down to pick it up, a long column of shopping carts, that were being returned to the shopping cart collection area, rolled out of control and plowed right into you.

ELEANOR: Off. That's how I died?

MICHAEL: No, sorry, there's more. You were able to grab on to the front of the column of shopping carts, but it'd swept you right out into the street where you were struck and killed by a mobile billboard truck advertising an erectile dysfunction pill called "Encorge-ulate."

Funnily enough, the first EMT to arrive was an ex-boyfriend of yours...

ELEANOR: Okay, that's... I get it, thank you.

MICHAEL: Oh, okay, sorry.

ELEANOR: Um, so who was right? I mean about all of this?

MICHAEL: Well, let's see. Hindus are a little bit right, Muslims a little bit, Jews, Christians, Buddhists, every religion guessed about 5%, except for Doug Forcett.

ELEANOR: Who's Doug Forcett?

MICHAEL: Well, Doug was a stoner kid who lived in Calgary during the 1970s. One night, he got really high on mushrooms, and his best friend Randy, said, “Hey what do you think happens after we die?” And Doug just launched into this long monologue where he got like 92% correct. [chuckles] I mean, we couldn’t believe what we were hearing. That’s him, actually, right up there. He’s pretty famous around here. I’m very lucky to have that.

ELEANOR: So... Maybe my biggest question. Am I... I mean is this...Or...

MICHAEL: Well, it’s not the heaven-or-hell idea that you were raised on. But generally speaking, in the afterlife, there’s a Good Place, and there’s a Bad Place.

You’re in The Good Place. You’re okay, Eleanor. You’re in The Good Place.

ELEANOR: Well, that’s good.

MICHAEL: Sure is. [laughs] Okay, let’s take a walk, shall we?

ELEANOR: Oh, did I have a purse? No, I’m dead, right. Okay.

MICHAEL: So this is how it works. The Good Place is divided into distinct neighborhoods. Each one contains exactly 322 people who have been perfectly selected to blend together into a blissful harmonic balance.

ELEANOR: Do all the neighborhoods look like this?

MICHAEL: No, every neighborhood is unique. Some have warm weather, some cold. Some are cities, some farmland. But in each one, every blade of grass, every ladybug, every detail has been precisely designed and calibrated for its residents.

ELEANOR: There’s a lot of frozen yogurt places.

MICHAEL: Yeah. [sighs] That’s the one thing we put in all the neighborhoods. People love frozen yogurt. I don’t know what to tell you.

You’re gonna have a million more questions, I know. For right now, better grab a seat. Movie’s about to begin.

MICHAEL (BIDEOAN): *Ah. [chuckles] Hello, everyone. And welcome to your first day in the afterlife. You were all, simply put, good people. But how do we know that you were good? How are we sure?*

During your time on Earth, every one of your actions had a positive or a negative value, depending on how much good or bad that action put into the universe.

Every sandwich you ate, every time you bought a magazine, every single thing you did had an effect that rippled out over time and ultimately created some amount of good or bad.

You know how some people pull into the breakdown lane when there's traffic? And they think to themselves, "Ah, who cares? No one's watching." We were watching. Surprise!

Anyway, when your time on Earth has ended, we calculate the total value of your life using our perfectly accurate measuring system. Only the people with the very highest scores, the true cream of the crop, get to come here, to The Good Place.

What happens to everyone else, you ask? Don't worry about it. The point is, you are here because you lived one of the very best lives that could be lived. And you won't be alone. Your true soulmate is here too. [crowd gasps and murmurs] That's right. Soulmates are real. One of the other people in your neighborhood is your actual soulmate, and you will spend eternity together.

So welcome to eternal happiness. Welcome to The Good Place. Sponsored by Otters holding hands while they sleep. You know the way you feel when you see a picture of two otters holding hands? That's how you're gonna feel every day.

ELEANOR: So who is in The Bad Place that would shock me?

MICHAEL: Uh, Well, Mozart, Picasso, Elvis, basically every artist ever, uh, every US president except Lincoln.

ELEANOR: That sounds about right. What about Florence Nightingale?

MICHAEL: It was close, but, no, she didn't make it.

ELEANOR: Wow, all those amazing people down there, it just seems so hard to believe.

MICHAEL: Again, it's an incredibly selective system. Most people don't make it here. But you, a lawyer who got innocent people off the death row, you're special, Eleanor. And by the way, welcome to your new home.

Oh, it's perfect, isn't it? You see, in The Good Place, every person gets to live in a home that perfectly matches his or her true essence.

ELEANOR: Cool. So, I guess that's why my house, for example, is this adorable little cottage, whereas other people might have homes that are bigger, like that one.

MICHAEL: Exactly. Oh, I'm so happy you get it.

As you can see, the interior has been decorated just as you like it, in the Icelandic primitive style. Oh, oh, and, uh, of course, you love clowns, so...

ELEANOR: I do love clowns.

MICHAEL: Now, let me show you the, uh, the video system here.

You can review everything that happened in your life from your point of view.

There we go. This is your human rights mission to the Ukraine. I mean, you got a ton of points for that one. It really put you over the top.

Oh. Chidi, come on in.

CHIDI: Eleanor? I'm Chidi Anagonye, and you are my soulmate.

ELEANOR: Cool! Bring it in, man.

MICHAEL: Now, excuse me. I have other people to attend to.

ELEANOR: So, where you from, Chidi?

CHIDI: Well, I was born in Nigeria, raised in Senegal, but my work took me all over the place. Australia, Hong Kong, Paris. What about you?

ELEANOR: Uh, well, I... I was born in Phoenix. Arizona. And then I went to school in Tempe, Arizona. And then I moved back to Phoenix, Arizona.

Your English is amazing.

CHIDI: Oh! I'm actually speaking French. This place just translates whatever you say into a language the other person can understand. So, it's incredible.

ELEANOR: Whoa.

CHIDI: And now I want to say this.

ELEANOR: Mmm-kay.

CHIDI: Eleanor. I have spent my entire life in pursuit of fundamental truths about the universe. And now we can actually learn about them together as soulmates. It's overwhelming.

ELEANOR: Chidi. You'll stand by my side no matter what, right?

CHIDI: Of course, I will.

ELEANOR: Promise me. Say, "I promise I will never betray you for any reason."

CHIDI: Eleanor, I swear that I will never say or do anything to cause you any harm.

ELEANOR: Good. Because those aren't my memories. I wasn't a lawyer. I never went to the Ukraine. I hate clowns. There's been a big mistake. I'm not supposed to be here.

CHIDI: Wait, what?

CHIDI: Are you sure this isn't you?

ELEANOR: Yeah, man, I'm pretty sure I wasn't a death-row lawyer who collected clown paintings and rescued orphans. They got my name right, but nothing else. I mean, somebody royally forked up. [chuckles] Somebody forked up. Why can't I say "fork"?

CHIDI: If you're trying to curse, you can't here. I guess a lot of people in this neighborhood don't like it, so it's prohibited.

ELEANOR: That's bull-shirt.

CHIDI: So, if you're not this person, then who are you? What did you do for a living?

ELEANOR: I was... In... Sales.

NAGUSIA: So we sell two products here, NasaPRO and NasaPRO Silver. We aim this at seniors. Now, you can't legally call it "medicine" because it doesn't technically work and it is technically chalk, so what you're gonna want to do...

ELEANOR: You need me to lie to old people and scare them into buying fake medicine. I get it man. Which one's my desk?

CHIDI: So, your job was to defraud the elderly... Sorry, the sick and elderly?

ELEANOR: But I was very good at it. I was the top salesperson five years running.

CHIDI: Okay, but that's worse. I mean, you, you do get how that's worse, right?

CHIDI: You know, maybe it's a test. Maybe if you go to Michael and you tell him the truth, you'll pass the test and you'll get to stay.

ELEANOR: No way. I can't risk going to The Bad Place.

CHIDI: Okay, well, maybe it's not actually, like, all that bad. Let's just get some information first. We'll ask Janet. Hey, Janet?

JANET: Hi there. How can I help you?

ELEANOR: What the fork? Who are you?

JANET: I'm Janet. I'm the informational assistant here in The Good Place.

CHIDI: She's like this walking database. You can ask her about the creation of the universe, or history...

ELEANOR: Oh, there was a guy who lived in Avondale, Arizona, around 2002. His name was Kevin Paltonic. Is he gay?

JANET: No.

ELEANOR: Really? Huh. I guess he just didn't want to have sex with me.

JANET: That's correct.

ELEANOR: Well, that's fine, I wasn't that into him anyway.

JANET: Yes, you were.

CHIDI: Okay, Janet, I have a question.

JANET: Okay.

CHIDI: What is The Bad Place like?

JANET: Oh, sorry, that is the one topic I'm not allowed to tell you about. I can only play you a brief audio clip of what is happening there right now.

CHIDI: Okay.

WOMAN: *The bear has two mouths!*

ELEANOR: Well, it doesn't sound awesome.

ELEANOR: Does everyone have a huge house except me? All right, we need a plan. I say we just lie low and hope that they don't notice me.

CHIDI: I'm sorry, I don't think I can help you. I just don't like being dishonest, and I can't advise you to be dishonest either.

ELEANOR: Come on, I'm just asking you to fudge a little bit. You must've told a few white lies in your life. I mean, what was your job?

CHIDI: I was a professor of ethics and moral philosophy.

ELEANOR: Mother-forker.

CHIDI: I'm getting a stomachache. I'm in a perfect utopia, and I'm... I have a stomachache. This is awful. I, uh... I think I have to tell Michael about this.

MICHAEL: Tell Michael about what?

ELEANOR: Michael? Hi. What have you been up to?

MICHAEL: Eleanor, Chidi, I would like you to meet Tahani and Jianyu. There are soulmates and your next-door neighbors.

TAHANI: Hello. Can I just say I love your house? It's just so tiny and cute. It's like a little child's plaything, like for a family of mice or for a very fancy little dog. I love it. It's just so sweet and teensy. Just like you. Boop.

MICHAEL: Oh!

ELEANOR: Oh! You booped me. [laughs]

TAHANI: I did.

ELEANOR: That's fun.

MICHAEL: Tahani and Jianyu are having a little welcome party tonight, and they've invited the entire neighborhood.

TAHANI: Oh, I simply adore entertaining. Don't I just adore it, Jianyu?

Oh, yes, by the way, Jianyu here is a Buddhist monk, you see, and he obeys a strict code of silence. So, when you see him smiling and nodding, that's actually his way of jumping up and down with glee. Isn't that right, darling?

So, we'll see you tonight?

ELEANOR: Great.

CHIDI: Yes.
